



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariarena; Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitara ematen dira, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituek barematu ostean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko, hautaketa-prozedurarako deia egin zen. Agindu horren 8.7. oinarriak zehazten duenarekin eta Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2016ko ekainaren 6ko Ebazpenaren 1 atalan adierazten duenarekin bat etorritik (Ebazpen honen bidez, aipatutako aukeratze-prozeduraren lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak argitara emateko modua eta tokiak, baita haien kontra erreklamatzeko epea, era eta tokiak ere, argitara eman zituena),

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitaratzea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Unitateek barematu dituzte merituek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren barruan.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako lehiatzaileek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura" -> "Hautaketa prozesuaren jarraipena" -> kidegoa eta espezialitatea adierazi -> "Emaitzak" -> "Lehiaketa aldia - Partziala".

Hirugarrena.- Lehiatzaileek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren kontra, lau laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (2016ko ekainaren 28,29 eta 30 eta uztailaren 1).

Erreklamazio horiek Hezkuntza, Hizkuntza politika eta kultura Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari bidaliko zaizkio eta Zuzenean-en edo Administrazio Prozeduraren legeak zehazten dituen gainontzeko erregistro ofizialetan aurkeztu beharko dira. Horretarako, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2016ko



*HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA*
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

*DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA*
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

ekainaren 6ko Ebazpenaren Eranskinean gaineratutako I. eranskina beteko da eta, behar izanez gero, justifikatzeko dokumentazioa ere gaineratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 27a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

KONRADO MUGERTZA URKIDI